



ESKABIDEA: IKASTETXEETAKO JANTOKIETARAKO DIRU-PRESTAZIOAK

2026-2027ko IKASTURTEA

ESKABIDEA

ESKATZAILEA

Lehen abizena:		Bigarren abizena:	
Izena:			
IFZa/AlZa		Telefonoak	
Helbidea			PK

ESKAERA

Dirulaguntza, behean aipatutako adingabeek ikastetxeko jantokian bazkal dezaten:

IKASTETXEA:

JANTOKIRAKO DIRULAGUNTZA IKASTETXEAN ESKATU BEHARKO DUZU, SARE PUBLIKOKO IKASTETXEA BADA

ADINGABE ONURADUNAK

Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena	IKASTURTEA

- *Konpromisoa hartzen dut galdatu zaizkidan agiriak aurkezteko, oinarrietan ezarritako epean.*
- *Bete egiten ditut onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek aipatzen dituen betekizun orokorrak eta deialdi honetan ezarritako berariazko betekizunak oro.*
- *Baimena ematen dut Iruñeko Udalak bere kabuz ziurta dezan oinarrien D letran adierazitakoa.*
- *Konpromisoa hartzen dut jantokiaren entitate kudeatzaileei lagatzeko jantoki-zerbitzuaren kasuan kasuko zerbatekoa kobratzeko eskubidea.*

Iruñean, 202__ (e)ko _____ aren __ (e)(a)n

Eskatzailearen sinadura

DATUEN BABESA

Iruñeko Udala da dirulaguntza kudeatzeko bakarrik erabiliko diren izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren arduraduna. Datu horiek diruz lagundutako zenbatekoa jasoko duten jantokiak kudeatzen dituzten entitateei jakinaraziko zaizkie. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira–, horiek ezabatzeko eta bestelako eskubideak gauzatzeko Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.pamplona.es/eu webguneko pribatutasun-politikan kontsultatzen ahal dituzu.



**- II. ERANSKINA -
- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA -**

Izena-abizenak:

Helbidea (jakinarazpenetarako):

..... NANA: Telefonoa:
..... Faxe: Helbide elektronikoa:
.....

Bere kabuz edo honako hau ordezkatzuz (dagokionaren arabera):
..... Helbidea:
..... IFZa:
..... Telefonoa: Jakinaren gainean nago
ikastetxeetako jantokietan 2026/2027ko ikasturtean bazkaltzeko diru-prestazioak banakako ebaluazio-
arabidean emateko deialdia egin dela.

ADIERAZPENA:

- Eskabidean jasotako datuak benetakoak dira, eta badituz hori egiaztatzen duten agiriak; halaber, men egiten diet aginte eskudunek egiten ahal dituzten egiaztapenei.
- Bete egiten ditud onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak aipatzen dituen betekizun orokorrak eta deialdi honetan ezarritako berariazko betekizunak.
- Konpromisoa hartzen dut eskatutako laguntzaren zenbatekoa erabiliko dudala dirulaguntza emateko oinarritzat hartu diren helburuak eta jarduerak betetzeko.
- Xede bererako dirulaguntzen eskaerei dagokienez, honako hau adierazten dut (markatu dagokiona):
 - o Ez diet ezein dirulaguntza eskatu, deialdi honen xede bererako, nazioko edo nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edo beste ezein partikularri –ezta haiengandik halakorik jaso ere-.
 - o Dirulaguntza hauek eskatu dizkiet, deialdi honen xede bererako, nazioko zein nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edo beste edozein partikularri: (zehaztu data, entitatea eta zenbatekoa)
 - o Dirulaguntza hauek jaso ditud, deialdi honen xede bererako, nazioko zein nazioarteko administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edota partikular hauen eskutik: (zehaztu data, entitatea eta zenbatekoa)
- Baimena ematen dut Iruñeko Udalak deialdiaren G.4 apartatuan adierazitakoa ofizioz egiaztatzeko.

Eta hala jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, agiri hau egin, eta sinatzen dut,

Iruñean, (e)ko aren (e)(a)n
(Sinadura)

DATUEN BABESA - Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betez, jakitera ematen dizugu deialdi honetan jasotako datu pertsonalak dirulaguntza hau kudeatzeko baino ez direla erabiliko, eta datu horiek Iruñeko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan biltzen ahalko direla. Hain zuzen ere, Iruñeko Udalera zuzenduta erabiltzen ahalko duzu datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko eskubidea, edo Erregistro Orokorra (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) zein egoitza elektronikora (www.pamplona.es/eu) joz.



III.A ERANSKINA - INFORMAZIOA. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauen fotokopiak aurkeztu beharko dituzte:

- 1) Eskabidea behar bezala beterik eta erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskina).
 - 2) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak.
 - ❖ Eskatzailearen (guraso edo legezko tutorea) indarreko NANaren, AIZaren edo pasaportearen fotokopia.
 - 3) Familia-liburuaren fotokopia edo, hala badagokio, hori ordezkatzan duten agiriak: jaiotza-ziurtagiria.
 - 4) Kasu guztietan, bizikidetz-unitateko kide guztien (aita edo ama eta horien ezkontide edo izatezko bikote berriak) 2025eko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Aitorpenaren fotokopia eta **datu fiskalen orria** aurkeztu beharko da, **datu fiskalak barne**. Aitorpen hori egiteko betebeharra ez badute, betebeharririk ez dutela adierazten duen egiaztagiria aurkeztu beharko dute –Foru Ogasunak emana–. Kasu horretan, errenta konputagarria dagokion urtean jasotako diru-sarrerera gordin guztien batura izanen da.
 - 5) Salbuespen gisa, urtarilaren 1etik aitzina edo eskaera egin aurreko sei hilabeteetan diru-sarreretan murrizketa handiak izan dituzten familiek (langabezia, zurtasuna etab. direla medio). Hori adierazi beharko dute, eta murrizketa horren arrazoia egiaztatzen duten agiriak aurkezten ahalko dituzte. Nolanahi ere, apartatu honen hurrengo letran galdatzen den errenta-aitorpena ere aurkeztu beharko dute.
- Egoera berriari dagozkion diru-sarrerak baloratzeko, horiek behar bezala justifikatu beharko dira, kasuan kasuko aldiaren jasotako zenbatekoei buruz erakunde publikoek edo enpresek eman beharreko honako ziurtagiri hauen bidez: nominak; Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren egiaztagiria –langabezia-prestazioa edo -sorospena jasotzen dituztenen kasuan–, enplegu-eskaeraren txartela, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala –pentsioak–, konpentsazio-pentsioa edo mantenu-pentsioa –banantze-epaiaren edo hitzarmen erregulatuaren bidez–, edo beste egiaztagiri batzuk, dagokionaren arabera.
- 6) Banantze- edo dibortzio-kasuetan, epaiaren eta hitzarmen arauemailearen fotokopia edo izapideak abiatuak direla justifikatzen duen agiria. Mantenu-pentsioa ez bada ordaintzen ari, epaitegian epaia betearazteko aurkeztutako eskaeraren kopia edo jarduketak abiarazi izanaren egiaztagiria.
 - 7) Bateratze-baldintza frogatzeko, egoera hori egiaztatzen duten agiriak (lan-kontratua, enpresa-ziurtagiria, autonomoen erregimenean alta emanda egotearen ziurtagiria...).
 - 8) Hipoteka- edo alokairu-gastuen azken hiru ordainagiriak gutxienez ordaindu izanaren gaineko egiaztagirien fotokopia eta errentamendu-kontratuaren fotokopia.
 - 9) Desgaitasuna dutenen kasuan, desgaitasun-mailaren ziurtagiriaren fotokopia aurkeztu behar da.
 - 10) Iruñeko Udalak dirulaguntza zehazteko beharrezkoak jotzen dituen beste agiri batzuk eskatzen ahalko ditu, osasun-, gizarte- edota ekonomia-egoera justifikatzekoak, betiere programaren arduradunak eskatzen baditu.



IV. ERANSKINA - ESKOLA-JANTOKIEN HITZARMENA

LANKIDETZA HITZARMENA IRUÑEKO UDALAREN ETA (*ikastetxe edo entitate laguntzailearen izena*)-(r)en ARTEAN JANTOKIRAKO BEKEN (ESKOLA-JANTOKIAK) DIRULAGUNTZA DEIALDIKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN KUDEAKETARAKO.

Alde batetik, Iruñeko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi ordezkaria
(..... jauna/ anderea)

Eta beste aldetik, arloan eskumena duen zinegotzia.
(..... jauna/anderea)

Bi aldeek, ordezkaten dituzten erakundeen izenean, elkarri gaitasuna aitortzen diote elkar behartzeko eta adosteko, eta

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA. – Maiatzaren 3ko 2/206 Lege Organikoaren 80. artikulua agindua ematen die Administrazio publikoei prebentzio- eta konpentsazio-jarduera bermatzeko, gizarte-, hezkuntza- eta kultura-esparruetan zaurgarritasun egoeran dauden haur guztiak eskolatzeko baldintza onuragarrienak bermatuz, ahalik eta hezkuntza- eta gizarte-garapen handiena sustatzeko, hezkuntza inklusiboa jaso dezaten, gainerako baldintza berberetan.

Hezkuntzako kontseilariak emandako 93/2008 Foru Aginduan, 36. artikuluan, xedatzen da berdintasuna eta despaketotasunen konpentsazioa bermatze aldera urtero bekak eta laguntzak banatzeko deialdiak egiten direla, jantokirako, eskola-materialetarako, jarduera osagarrietarako eta prestakuntza-jardueretarako.

BIGARRENA. - Eskola-adineko adingabeen jantoki-gastuak finantzatzeko diru-prestazioaren helburua da eskola-adina duten adingabeen oinarrizko elikadura premiei erantzun egokia ematea lortzea beren ikastetxeko jantoki-zerbitzuaren bidez, familiaren edo adingabearen inguruabarrek hala eskatzen dutenean.

Prestazio honek xede ditu, besteak beste:

- Eskola-adina duten adingabeen oinarrizko elikadura-premiei erantzun egokia ematea lortzea, eskola-jantokiko zerbitzua eskuratzea erraztuz, modu horretan eskolatzeko eta ikastetxean jarraitzea bermatzeko.
- Balizko gabezia familiar edo ekonomikoak konpentsatzea eta, hala, elikadura egokiagoa lortzea.
- Lana eta familia bateragarri egiten laguntzea.

HIRUGARRENA. -Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12. artikuluan eta hurrengoetan zehazten denez, entitate laguntzaileek aukera izanen dute diru-prestazio publikoen kudeaketan parte hartzeko.

LAUGARRENA. - (*Ikastetxearen/entitate laguntzailearen izena*)k interesa dauka Iruñeko Udalarekin lankidetzan aritzeko gizarte laguntza horiek kudeatzen eta, era berean, hitzarmenaren xede diren gizarte-prestazioak erregulatzeko indarrean dagoen araudian eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean eskatzen diren baldintzak betetzen ditu Iruñeko Udalaren entitate laguntzaile izateko.



Adierazitako guztiagatik, bi aldeek lankidetzeta hitzarmena sinatzea **ADOSTU** dute, zeina honako KLAUSULA hauek arautuko baitute:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honen xedea da Iruñeko Udalak entitate laguntzaile izendatzea eta **(Ikastetxearen/entitate laguntzailearen izena)**k izaera hori onartzea Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean xedatutakoarekin bat, eskola-adinean dauden eta laguntza horren onuradun diren adingabeen oinarritzko elikadura-premiei behar bezala erantzuteko esku-hartze koordinatua lortzeko, ikastetxe horretako jantoki-zerbitzuaren bidez. Horretarako, Udalak laguntza ekonomikoak emanen ditu, zerbitzu horren kostuaren zati bat finantzatzeko, eskola-urteko dirulaguntzen deialdian zehaztutako edukiarekin eta ezaugarriekin.

BIGARRENA. – Iruñeko Udalaren betebeharrak:

Iruñeko Udalak prestazioaren onuradun diren ikastetxeko ikasleen zerrendaren berri emanen dio entitate laguntzaileari, zer epetarako eman den eta emandako zenbatekoa adierazita. Halaber, Udalak ikasle onuradunen prestazio ekonomikoa entitate laguntzaileei ordainduko die zuzenean, baldin eta azken horrek dagozkion justifikazio-agiriak aurkeztu baditu.

HIRUGARRENA. - Entitate laguntzaileen betebeharrak:

Entitate sinatzailea entitate laguntzaileetat joko da Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 9. artikuluan eta azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 12. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta, ondorioz, lege horren 13. eta 15. artikuluetan ezarritako araubidearen mende geratuko da, baita Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. eta 12. artikuluetan aurreikusitakoaren mende ere.

Erakunde laguntzaileek egiaztatu beharko dute jarduera egin dela eta dirulaguntza emateko erabakigarriak diren helburuak bete direla.

Entitate laguntzaileek honako konpromiso hauek hartuko dituzte:

1. Jasotako zenbatekoak Iruñeko Udalak jakinarazitako laguntzaren onuradunen jantoki-zerbitzuei dagokien zatia ordaintzeko erabiltzea, oinarrietan eta sinatutako hitzarmen honetan ezarritako irizpideekin bat.
2. Eskola-jantokiak erabiltzeagatik dirulaguntzak jaso izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztea.
3. Iruñeko Udalak jakinarazitako laguntza-eskaeren kasuan, haurrak jantokira joaten direla kontrolatzea.
4. Aldez aurretik jasotako zenbatekoen erregularizazioak egitea, dagokien justifikazioa egin ostean.
5. Men egitea funts horien kudeaketaren gainean Iruñeko Udalak egiten ahal dituen egiaztapen-jarduketari.

LAUGARRENA. - Hitzarmenaren indarraldia:

Hitzarmenak 2026-2027ko ikasturtean izanen du eragina.

BOSGARRENA. – Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak:



Hitzarmen hau aurreko klausulan ezarritako indarraldia amaitzen denean azkenduko da, hartutako konpromiso guztiak aldez aurretik betetzen badira edo behar baino lehenago suntsitzen bada.

Hitzarmena behar baino lehenago suntsiarazteko arrazoiak:

- Alde sinatzaileek aho batez adostea.
- Hitzarmenaren testuan jasotako akordioak haustea, dagokion aldeak hilabete bat lehenago salatuta.

SEIGARRENA. – Hitzarmena aldatzea:

Hitzarmen hau eta dagozkion prozedura-arauak gizarte-laguntza horiek arautzen dituen deialdian egiten ahal diren aldaketan mende egonen dira.

ZAZPIGARRENA. – Datuen babesa:

Bi aldeek konpromisoa hartzen dute Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoa eta hura osatzen edo ordeztzen duen gainerako araudia betetzeko hitzarmen hau gauzatzean erabiltzen ahal diren datu pertsonalen tratamenduari dagokionez. Nolanahi ere, bi aldeek konpromisoa hartzen dute sekretu-betebeharra bermatzeko hitzarmen honen bidez eskuratutako datu pertsonalei dagokienez, baita hitzarmena amaitu ondoren ere.

ZORTZIGARRENA. Izaera juridikoa, aplikatu beharreko legeria eta jurisdikzio eskuduna:

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen aplikaziotik kanpo, eta bere akordioaren edukiaren, oinarritzko administrazio-araudiaren eta, bereziki, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren, Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren eta aplikatu beharreko gainerako arauen arabera arautzen da.

Edozein gatazka Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan bideratzen ahalko da azken instantzian.

Eta gorago jasotako guztiarekin ados daudela jakinarazteko, adierazitako lekuan eta datan sinatzen dute.

Udalaren aldetik

Entitate laguntzailearen aldetik.